



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EUDEL EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN KONTSULTA

GAIA: 279-SUST-2018

I. AURREKARIAK

2018ko martxoaren 20an Lehiaren Euskal Agintaritzaren erregistroan idazki bat jaso zen, xedetzat honako hau zuena: Lehiaren Euskal Agintaritzak jabetza intelektualaren eta honek euskal udalen gainean duen eraginaren egungo egoera argitzea. Era berean, idazkian Lehiaren Euskal Agintaritzari eskatzen zitzaion jabetza intelektualaren arloko hitzarmenak sinatzearen egokitasunaren inguruan iritzia emateko, edo auzia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea bideratu behar den zehazteko.

Kontsultan honako hau jasotzen zen:

Eudelek eta Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkarteak hitzarmen bat sinatu zuten 2000. urtean egile eskubideen inguruan, 2010. urtean zabaldu egin zena kiroldetietan aplikatzeko.

Orain dela gutxi, Euskal Kulturgileen Kidegoa Eudelekin harremanetan jarri da, beste hitzarmen bat sinatzeko asmoz. Euskal Kulturgileen Kidegoak Eudeli egindako proposamena, hein batean, lehian sartzen da bere garaian Eudelek eta Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkarteak sinatutako hitzarmenarekin, batik bat euskal autoreei dagokienez.

Horrez gain, azkenaldian euskal udalek errekerimendu ugari jaso dituzte CEDRO elkartearen partetik, udal liburutegietako liburu maileguarekin lotuta. Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 37.2 artikulua (2007an aldatu zen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Espainia zigortu ostean autoreentzat euren lanak mailegatzeagatik inolako ordainsaririk ez aurreikusteagatik) eta aipatu artikulua garatu zuen ekainaren 18ko 624/2014 Errege Dekretua oinarri hartuta, CEDROk honakoa argudiatzen du: ordainsariaren onuradunak ez dira soilik CEDROk ordezkatutako testuzko obren egileak, baita liburuetan jasotako irudien egileak (VEGAP elkarteak ordezkatzen ditu), ikus-entzunezko obren egileak eta obra fonografikoen egileak ere (Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkarteak eta DAMA elkarteak ordezkatzen ditu).

Auziaren konplexutasuna ikusita, egoera aztertzea beharrezkotzat jotzen dugu:

- Eudel eta Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkarteak sinatutako hitzarmenak atxikita daude.



- Euskal Kulturgileen Kidegoak Eudeli egindako hitzarmen proposamena atxikita dago.
- CEDRO elkartearekin errekerimenduen eta Euskal Kulturgileen Kidegoak Eudeli egindako hitzarmen proposamenaren harira sortutako egoera.

Ondorio bezala, jabetza intelektualaren sektorean emandako liberalizazioa aintzat hartuta, Lehiaren Euskal Agintaritzari eskatzen diogu txosten bat egin dezan arlo honetan hitzarmenak sinatzearen egokitasunaren inguruan iritzia emateko, edo auzia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea bideratu behar den zehazteko.

II. IRISMENA ETA ESKUMENAK

Atariko gisa, zehaztu beharra dago Lehiaren Euskal Agintaritzak ahaldunduta dagoela Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1., 2. eta 3. artikuluetan debekatutako jokabideak ezagutzeko, betiere jokabide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean soilik badituzte ondorioak. Horrenbestez, azaldutako irizpideekin bat eginik, honako hauek ez dagozkio Lehiaren Euskal Agintaritzari: – Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1., 2. eta 3. artikuluetan debekatutako jokabideak ezagutzea, horien ondorioek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik kanpo dutenean eragina. – Indarreko legediarekin bestelako ez-betetzeak ezagutzea, merkatuko lehia askearen gaineko eragin erreal edo potentzialek ez badute. Horrenbestez, dituen eskumen materialak kontuan izanik, Lehiaren Euskal Agintaritzak merkatuetan lehia aske eta eraginkorra izatearekin lotutako jokabideen inguruko iritzia eman dezake soil-soilik, betiere Lehiaren Defentsari buruzko Legearen arabera.

Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua ezartzen duenez, ondorengo erakundeek eskatu ahal izango diote aholkua Lehiaren Euskal Agintaritzari lehiaren eremuan: Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, Batzar Nagusiek, Foru Aldundiek, udalek, lanbide-elkargoek, merkataritzaganberek, enpresarien elkarteek, sindikatuek, eta kontsumitzaile nahiz erabiltzaileen elkarteek. Horrenbestez, Lehiaren Euskal Agintaritzak eskumena du Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan lehiaren defentsarekin lotutako auzien inguruko organo aholku-emaile gisa jarduteko.

III. KONTSULTAREN AZTERKETA LEHIAREN ARLOKO ZUZENBIDEAREN IKUSPUNTUTIK



1. Eskubide kudeaketako erakundeak

Indarreko lege xedapenak arautu, argitu eta harmonizatzen dituen Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategineko Hirugarren Liburuko IV. tituluaren arabera –apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Legea–, Espainian egoitza duten eta legalki eratuta dauden erakundeek, baldin eta beren izenean edo besteren izenean ustiapen eskubideen edo ondare izaerako bestelako eskubideen kudeaketan aritu nahi baldin badute, hainbat egileren edo jabetza intelektualeko eskubideen titularrak diren bestelakoen ordezkari gisa eta onerako, Kultura Ministerioaren baimena lortu behar dute. Horrela, jabetza intelektuala behar bezala babesten dela bermatu nahi da. Kultura Ministerioaren baimena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

Jabetza intelektuala babesteko helburuarekin, erakunde horiek ezin dute irabazi-asmorik izan, eta, jasotako baimenari jarraikiz, euren kudeaketaren esku utzitako jabetza intelektualeko eskubideak gauzatu ditzakete¹.

Kudeaketa-erakundeak derrigortuta daude titularrek euren esku utzitako egile eskubideen eta jabetza intelektualeko beste eskubideen administrazioa onartzera, betiere dituzten helburuekin bat.

Eskubideak erakunde horien esku uzten dituzten eskubideen titularrek kontratu bat izenpetuz egin behar dute, eta kontratuak ezingo dira hiru urte baino gehiagokoak izan (urtebeteko

¹ Dagoeneko desagertuta dagoen Lehiaren Batzorde Nazionalak irabazi-asmorik ez izateko betebeharraren eta administrazio baimenaren baldintzaren aurkako jarrera agertu zuen 2013ko irailaren 4ko honako txosten honetan: “Proiektu Normatiboaren Txostena 102/13. Jabetza intelektualari buruzko Legearen eta Prozedura Zibilaren Legearen testu bategina aldatzeko Lege Aurreproiektua”.

https://www.cnmc.es/sites/default/files/424534_2.pdf .

Era berean, gaur egungo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, balorazio negatibo horrekin bat egin zuen 2017ko azaroaren 30eko txosten honetan: “Proiektu Normatiboaren Txostena/Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala/040/17. Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina aldatzeko Lege Aurreproiektua, Espainiako ordenamendu juridikoa Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/26/EB Zuzentaraura egokitzeko honako arlo hauei dagokienez: egile eskubideen eta eskubide hurkoen kudeaketa kolektiboa, eta musika obren eskubideen lizentzia multiterritorialak ematea linean erabil daitezzen Europar Batasuneko barne-merkatuan”.

https://www.cnmc.es/sites/default/files/1864731_7.pdf



aldietan berrituko dira). Kontratu horiek ezingo dute derrigortzat jo ustiapen modalitate guztien kudeaketa, ezta obra guztiaren edo etorkizuneko ekoizpenen kudeaketa ere.

Bildutako eskubideak modu zuzenean banatuko dira erabilitako prestazioen edo obren titularren artean, betiere estatutuetan zehazten den eta bidegabekeriak saihesten dituen sistema bati jarraiki.

Kudeaketa-erakundeak bereganatutako eskubideen banaketan, titularren partaidetza horiei dagozkien obren edo prestazioen erabileraren araberakoa izango da. Kudeaketa-erakundeek metodo eta baliabide egokiak zehaztuko dituzte erabiltzaileek beren jardueran egiten duten obren eta prestazioen erabilerari buruzko informazio xehatua lortzeko, eta beraz, horiek informazio hori helarazi behar dute, nahitaez, kudeaketa-erakundeekin adostutako formatu batean.

Kudeaketa-erakundeak derrigortuta daude kudeatutako eskubideen baimen ez eskusiboen lagapena **negoziatu eta kontratatzena**, dagokion ordainketaren truke eta berdintasunezko baldintza ez diskriminatzaileetan oinarrituz, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean salbu. Gainera, fede onez eta gardentasunez jardungo dute une oro.

Era berean, derrigortuta daude **tarifa orokorrak**, sinpleak eta argiak ezartzera, beren bilduma erabiltzeagatik eskatzen den ordainketa zehaztuz; zentzu horretan, murriztapenak aurreikusi beharko dira irabazi-asmorik ez duten erakunde kulturalentzat. Tarifen zenbatekoa arrazoizko baldintzetan oinarrituz zehaztuko da. Horretarako, erabiltzailearen jardueran obra edo prestazio babestuaren gaineko eskubideak erabiltzearekin lotutako balio ekonomikoa izan beharko da kontuan, bi alderdien arteko oreka egokia bilatuz.

Tarifa orokorrak zehazteko metodologia Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren agindu bidez onartu behar da; halere, aurretiaz Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena behar da.

Abenduaren 2ko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren 2574/2015 Aginduak (290. zenbakidun BOE, 2015eko abenduaren 4koa) tarifa orokorrak ezartzeko metodologia onartu zuen jabetza intelektualeko kudeaketa-erakundeen errepertorioa erabiltzeagatik exijitu daitekeen ordainsaria kontuan izanik, betiere kudeaketa-erakundeek eta erabiltzaileek tarifa orokorren ezberdinak diren tarifak aplikatzeko lor ditzaketan akordioei kalterik egin gabe.



Agindu horren zirriborroaren gaineko txostena 2015eko urriaren 8an egin zuen Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak².

Eskubideen kudeaketa-erakundeak derrigortuta daude **kontratu orokorrak hitzartu eta egitera** beren bildumenerabiltzaile-elkarteeekin, horiek hala eskatzen duten eta kasuan kasuko sektorea ordezkatzan duten heinean.

Aurreko paragrafoetan azaldutakoa ez da aplikatzen literatura obren, obra dramatikoaren, obra dramatiko-musikalen, obra koreografikoaren edo pantomina-obren eskubideen kudeaketan, ezta titularraren banan banako baimena behar duten edozein motako lanen erabilera bereziko ere, bai lan bakarra izan bai bat baino gehiago izan.

Gaur egun, zortzi dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren baimena duten jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa-erakundeak:

Egileekin eta honako kontsulta honekin lotuta:

- **Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkarte (SGAE)**:³ Helburu nagusitzat autore eta editoreek euren obren gainean dituzten erreprodukzio, banaketa eta komunikazio publikoko eskubide eskusiboak babestea du. Literatura lanen (ahozkoak eta idatzizkoak), lan musikalen (letrarekin edo gabe), antzerki lanen (dramatikoak, dramatiko-musikalak, koreografikoak eta pantomimikoak), lan zinematografikoen eta bestelako ikus-entzunezko eta multimedia obren gaineko eskubideez ari gara, bai obra originalenak, bai sorburua aurretiaz existitzen ziren obretan dutenenak (itzulpenak, konponketak, egokitzenak edo bestelako transformazioak)⁴.

² Proiektu Normatiboaren Txostena/Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala/0020/15: Tarifa orokorrak ezartzeko metodologia onartzeko Aginduaren gaineko txostena. Jabetza intelektualeko kudeaketa-erakundearen errepertorioa erabiltzeagatik exijitu daitekeen ordainsaria kontuan izanik ezartzen dira tarifok.

https://www.cnmc.es/sites/default/files/727045_3.pdf

³ 1988ko ekainaren 1eko Agindua, Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkarteari baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (134. zenbakidun BOE, 1988ko ekainaren 4koa).

⁴ Elkartearen estatutuaren 6. artikulua:

http://www.sgae.es/recursos/doc_interactivos/estatutos_nuevos/index.html



- **Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa (CEDRO)**⁵: Helburu nagusitzat du egileek eta editoreek inprimatuta dauden, edo inprimagarriak diren, obren gainean dituzten ondare izaerako jabetza intelektualeko eskubideen babesa eta kudeaketa. Obrok bai formatu analogikoan zabalduak bai formatu digital ukigarri zein ez-ukigarrian zabaldutakoak izan daitezke⁶.

Horrez gain, autore plastikoen eta ikus-entzunezko autoreen eskubideak baimendutako beste erakunde batzuek ere kudeatu ditzakete:

- **Bisual, Artista Plastikoen Kudeaketa Erakundea (VEGAP)**^{7 8}.
- **Ikus Entzunezko Baliabideen Egile Eskubideen Elkarte (DAMA)**^{9 10}.

Bestalde, honako elkarteak daude **artista interpretatzaile edo jotzaileekin lotuta**:

- **Artista interpretatzaileak edo jotzaileak. Espainiako Kudeaketa Sozietatea (AIE)**^{11 12}.

⁵ 1988ko ekainaren 30eko Agindua, Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroari (CEDRO) baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (166. zenbakidun BOE, 1988ko uztailaren 12koa).

⁶ Elkartearen estatutuetako 4. artikulua: <http://www.cedro.org/docs/default-source/socios/estatutos.pdf>

⁷ 1990eko ekainaren 5eko Agindua, «Bisual, Artista Plastikoen Kudeaketa Erakundea» (VEGAP) elkarteari baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (141. zenbakidun BOE, 1990eko ekainaren 13koa).

⁸ Elkartearen estatutuetako 4. artikulua:

http://www.vegap.es/Info/Documentos/ESTATUTOS/Estatutos_2017_2.pdf

⁹ 1999ko apirilaren 5eko Ebazpena, Kulturako estatu-idazkariarena, Ikus Entzunezko Baliabideen Egile Eskubideen Elkarteari (DAMA) baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (85. zenbakidun BOE, 1999ko apirilaren 9koa).

¹⁰ Elkartearen estatutuetako 7. artikulua: <https://www.damautor.es/que-es-dama/>

¹¹ 1989ko ekainaren 29ko Agindua, «Artista interpretatzaileak edo jotzaileak. Espainiako Kudeaketa Sozietatea» (AIE) elkarteari baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (171. zenbakidun BOE, 1989ko uztailaren 19koa).

¹² Elkartearen estatutuetako 4. artikulua: <https://www.aie.es/wp-content/uploads/Estatutos.pdf>



- **Aktore interpretatzaileen elkarte, Espainiako Kudeaketa Sozietatea (AISGE)**¹³

¹⁴

Azkenik, honako elkarteak daude **ekoizleekin** lotuta:

- **Eskubide Intelektualak Kudeatzeko Elkarte (AGEDI)**^{15 16}.

- **Ikus Entzunezko Ekoizleen Eskubideen Kudeaketa Erakundea (EGEDA)**^{17 18}.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, ekainaren 24ko 896/2011 Errege Dekretuak, irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku utzitako Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak zabaltzen dituen¹⁹, jabetza intelektualeko legeriaren betearaztearen arloan, ezarri zuen jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa-erakundeei dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituela jarrian zehaztutako funtzioak, betiere Estatuko legeriak ezarritako baldintzetan:

¹³ 1990ko azaroaren 30eko Agindua, «Aktore interpretatzaileak, Espainiako Kudeaketa Sozietatea» (AISGE) elkarteari baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (294. zenbakidun BOE, 1990eko abenduaren 8koa).

¹⁴ Elkartearen estatutuetako 7. artikulua:

<http://www.aisge.es/media/multimedia/ficheros/640.pdf>

¹⁵ 1989ko otsailaren 15eko Agindua, Eskubide Intelektualak Kudeatzeko Elkarteari (AGEDI) baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (60. zenbakidun BOE, 1989eko martxoaren 11koa).

¹⁶ Elkartearen estatutuetako 5. artikulua:

<https://www.agedi.es/images/Socios/0.3-AGEDI-Estatutos-2015.pdf>

¹⁷ 1990eko urriaren 29ko Agindua, Ikus Entzunezko Ekoizleen Eskubideen Kudeaketa Erakundeari (EGEDA) baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko (263. zenbakidun BOE, 1990eko azaroaren 2koa).

¹⁸ EGEDAREN estatutuetako 2. artikulua:

<http://www.egeda.es/estatutos/Estatutos%20EGEDA%2020-04-16.pdf>

¹⁹ 155. zenbakidun 2011ko ekainaren 30eko BOE; eta 124. zenbakidun 2011ko ekainaren 30eko EHAA, 138. zenbakidun 2011ko uztailaren 20ko EHAAn zuzendutakoa.



- a) Erakundeen edo erakunde elkarten baimenak ematea eta baliogabetzea, esklusiboki edo gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoan aritu nahi baldin badute beren izenean edo besteren izenean ustiapen eskubideen edo ondare izaerako bestelako eskubideen kudeaketan, hainbat egileren edo jabetza intelektualeko eskubideen titularrak diren bestelakoen ordezkari gisa eta onerako. Baimena emateko, ziurtatuko da betetzen direla Estatuko araudian ezarritako baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideon administrazio eraginkorra bermatzeko beharrezko baldintzak eta jabetza intelektuala babesteko interes orokorrak.
- b) Kudeaketa-erakundeon estatutuen eta estatutuon aldaketak onartzea.

Euskal Kulturgileen Kidegoa (EKKI) elkarteak baimena jaso zuen 2014an Jabetza intelektualari buruzko legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko, eksklusiboki edo gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoan²⁰.

EKKIren helburuetako bat da kudeatzea ustiapen eskubideak edo ondare izaerako beste batzuk egileen edo jabetza intelektualeko eskubideen beste titular batzuen ordezkari gisa eta onerako²¹, adibidez editoreak, ekoizleak, artistak eta interpretatzaileak.

EKKI honako elkarte hauek sustatu dute: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Editoreen Elkarte, Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala eta Euskal Herriko Musikarien Elkarte.

EKKIk jasotako baimenaren aurkako hiru helegite jarri ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, lehena Estatuko Administrazio Orokorraren izenean 2015eko otsailaren 3an, bigarrena AIEren izenean 2015eko apirilaren 23an, eta, hirugarrena, SGAE, CEDRO eta VEGAP elkarteek jarri zuten elkarrekin 2015eko ekainaren 19an.

Helegite horiek hurrenez hurren 2016ko maiatzaren 6an (ECLI: ES:TSJPV:2016:1623), 2017ko martxoaren 15ean (ECLI: ES:TSJPV:2017:1186) eta 2017ko urtarrilaren 19an (ECLI:

²⁰ 2014ko urriaren 20ko Ebazpena, Kultura Ondarearen zuzendariarena, Euskal Kulturgileen Kidegoari (EKKI) baimena ematen diona Jabetza intelektualari buruzko legeak aitortutako eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko, eksklusiboki edo gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoan (263. zenbakidun EHAA, 2014ko urriaren 21ekoa).

²¹ EKKIren estatutuetako 5. artikulua.

Hemen aipatua: <https://www.ekki.eus/es/banaketa>



ES:TSJPV:2017:126) emandako epaietan ezetsi zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak.

Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategineko 147. artikulua gainean Euskal Administrazioak eta EKKIk egindako interpretazioa egokia zela ebatzi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak; epaian zehazten denez, jabetza intelektualeko kudeaketa-erakundeak baimentzeko Kultura Ministerioaren eskumenak Estatu mailan edo autonomia erkidego batean baino gehiagotan jarduten duten erakundeei egiten die erreferentzia, eta, horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoan soilik jarduten duten kudeaketa-erakundeen kasuan, erakundeok baimentzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarena da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren iritziz, interpretazio hori egitea derrigorrezkoa da, Jabetza intelektualari buruzko abenduaren 11ko 22/1987 Legean jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa batasunaren alde egin bazuen ere legegileak, batasun hori alde batera utzi baitzuen legegileak berak Kataluniako Autonomia Estatutua aldatzeko uztailaren 19ko 6/2006 Lege Organikoa onartu zuen unetik aurrera. Izan ere, bertako 155.1.b) artikuluan Kataluniako Autonomia Erkidegoaren esku utzi zen aipatutako baimenak emateko eskumena; ez hori bakarrik, ekainaren 28ko Auzitegi Konstituzionalaren 31/2010 epaiak (172. zenbakidun BOE, 2010eko uztailaren 16koa), erabaki horrek Konstituzioaren bat egiten zuela ebatzi zuen. Funtsean, Auzitegi Konstituzionalak ondorioztatu zuen jabetza intelektualaren arloko betearazpen egintza bat zela ezbaian zegoena, eta, beraz, Estatuko legegileari dagokiola erabakitzea autonomia erkidegoek baimenak emateko eta baliogabetzeko eskumena gauzatzerik duten edo Estatuak beretzat gorde behar duen eskumena arlo horretako funtzio legegilearen titularra den aldetik (Espainiako Konstituzioaren 149.1.9 artikulua), eta, aipatutako Lege Organikoan argi eta garbi utzi zuenez Kataluniako Autonomia Erkidegoaren esku eskumen hori, legegileak lagapena egiteko erabakia hartu zuela Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bateginean kontrakoa iradokitzen duen testua izanagatik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ondorioztatu zuen 896/2011 Errege Dekretuak, lehen mailako legegileak autonomia erkidegoei jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa-erakundeak baimentzeko eskumena aitortu diela onartuz, Euskal Autonomia Erkidegoari arlo horretako transferentziak emateko aurreko Errege Dekretua zabaldu eta osatu zuela, espresuki aitortuz Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatutako Estatuaren funtzio eta zerbitzuen artean dagoela eskusiboki edo gehienbat



Euskal Autonomia Erkidegoan jardun nahi duten erakundeak edo erakunde elkarteak baimentzearena.

2. Eskubideen kudeaketaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan

Espanian kudeaketa-erakunde bakarra zegoen 1987 arte —SGAE—, eta bera zen eskubide guztiak monopolio-araubidean kudeatzen zituena. Jabetza intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legea onartutakoan, eskubide berriak sortu ziren, eta, ondorioz, eskubide berri horiek kudeaketaz arduratzeko kudeaketa-erakunde berriak sortu ziren. Gaur egun existitzen diren Estatu mailako zortzi kudeaketa-erakundeak, aldiz, ez daude elkarren arteko lehia eskubide berdinak kudeatzeko, baizik eta erakunde bakoitza gainontzekoek kudeatzen ez dituzten eskubide jakinetan espezializatu da (normalean titular kolektibo zehatz bati lotuta). Hori horrela, izatez, erakunde bakoitzak bere sektoreko monopolioa du, salbuespen bakarra ikus-entzunezko autoreen (zuzendariak eta gidoilariak) eskubideena delarik, 1999tik bi erakunde ari baitira lanean bertan: SGAE eta DAMA²².

Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, EKKIk jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa-erakunde gisa jarduteko lortutako baimenaren ostean, benetako lehia egoera bat ematen da merkatuan, jabetza intelektualeko araudiak babestutako lanak erabiltzen dituztenek eskubide legalak hainbat kudeaketa erakunderi ordaindu beharra dakarrena (SGAE eta EKKI, CEDRO eta EKKI, eta abar), **betiere erakunde bakoitzak kudeatzen duen erreperitorioaren arabera**²³.

Hori horrela, tokiko erakundeek eskubide legalak zabaltzen dituzten lanen egileak zeintzuk diren kontuan izanik ordaindu behar dituzte; horrenbestez, kudeaketa-erakunde bakar bateko erreperitorioan dauden autoreen lanak soilik komunikatzen badituzte publikoki, ez diote inolako eskubiderik ordaindu beharko bestelako kudeaketa-erakunderi.

²² Lehiaren Batzorde Nazionalaren “Jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa kolektiboari buruzko txostena” lanaren 38. eta 39. paragrafoak. https://www.cnmc.es/sites/default/files/1185907_3.pdf

²³ SGAEk kudeatutako erreperitorioa: <https://enlinea.sgae.es/RepertorioOnline/Buscar.aspx?opcion=inicializar>

CEDROk kudeatutako erreperitorioa: <https://www.conlicencia.com/licencia-de-pago-por-uso>

EKKIk kudeatutako erreperitorioa: <http://ekki.eus/es/katalogoa/>



Ondorioz, euskal udalerriek honako aukerak dituzte erabili nahi dituzten obren eskubideak kudeatzen dituzten erakundeekin lotuta:

- Udal bakoitzak indibidualki negoziatu eta kontratatu ditzake baimenen kontzesioak kudeaketa-erakundeekin, betiere baldintza zuzen eta ez-diskriminatzaileetan.
- Kudeaketa-erakundeekin kontratu orokorrak negoziatu eta egin ditzakete udalon ordezkari gisa jarduten duen Eudelen bitartez; kasu honetan, udal bakoitzak Eudelek adostutako hitzarmen orokorrenekin bat egiten du gerora.
- Erakunde bakoitzaren tarifa orokorretan jasotako kopuruak zuzenean ordain ditzakete²⁴, aldeztu aurretiko inolako negoziatorik gabe.

3. Hitzarmenak

Urriaren 1eko Sektore publikoaren araubide juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikulua hitzarmenak honela definitzen ditu: ondorio juridikodun akordioak dira, administrazio publikoek haien artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Horrez gain, 48. artikulua honakoa ezartzen du: administrazio publikoak hitzarmenak sinatu ahalko dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea.

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak –Espainiako ordenamendu juridikoa Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2014/23/EB Zuzentaraura eta otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraura egokitzen du–, honakoa ezartzen du 6.2 artikuluan: sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren mende dauden pertsona fisiko edo juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak Legearen aplikazio eremutik kanpo daude, betiere, hitzarmenon edukia aipatu Legeak edo administrazio arau bereziek araututako kontratuen artean ez badago.

²⁴ <http://tarifas.sgae.es>, <http://www.cedro.org/docs/default-source/Otarifas/tarifas.pdf?sfvrsn=32>, <http://www.vegap.es/Info/Documentos/TARIFAS/Catalogo de Tarifas Generales 2018.pdf>, <https://www.aie.es/usuarios/contratos-y-tarifas/>, <http://www.aisge.es/media/multimedia/ficheros/581.pdf>, http://www.agedi-aie.es/images/stories/pdf_tarifas/TT%20GG%20AGEDI-AIE%2005-01-2018.pdf, <https://www.ekki.eus/es/tarifak>



Euskal udalek –edo Eudelek euren izenean– jabetza intelektualeko eskubideak betetzeko sinatu ditzaketen hitzarmenen edukia **ez** dago obra kontratuen, obren kontzesio-kontratuen, zerbitzu-kontzesio kontratuen, horniketa-kontratuen edo zerbitzu-kontratuen artean, guztiak ere 9/2017 Legeak araututako kontratuak.

Horrenbestez, hitzarmenak dira udalentsat figura juridiko egokia kudeaketa-erakundeekin Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitako ordainsarien zenbatekoak adosteko, bai indibidualki bai kolektiboki.

Hitzarmen horiek, 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako eduki hauek izan behar dituzte gutxienez: hitzarmena sinatzen duten subjektuak eta aldeetako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen; Administrazioaren jarduketa zer eskumenetan oinarritzen den; hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak berau betetzeko egin beharreko jarduketak; aldeetako bakoitzak hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak; hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeak dituen ondorioak; hitzarmena behar bezala betetzen dela jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko mekanismoak; hitzarmena aldatzeko araubidea; eta hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmenek iraupen zehaztua izan behar dute, gehienez ere lau urtekoa, salbu eta arau bidez epe luzeagoa aurreikusten ez den. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea.

Hitzarmenak justifikazio-memoria bat izan behar du erantsita. Memoria horretan aztertu behar da hitzarmena beharrezkoa eta egokia dela, zein ondorio ekonomiko izango dituen, hizpide den jardura kontratuzkoa ez dela, eta 40/2015 Legean aurreikusitakoa betetzen dela.

Aurreko guztia gorabehera, SGAEk Eudelekin 2000ko azaroaren 24an sinatutako hitzarmena Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bateginak izandako askotariko aldaketan aurrekoa da²⁵, urriaren 1eko Sektore publikoaren araubide juridikoaren 40/2015

²⁵ Uztailaren 7ko 23/2006 Legea, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina aldatzen duena; uztailaren 22ko Irakurketaren,



Legea indarrean jarri aurrekoa da eta lehen SGAEko erreperitorioan zeuden obren kudeaketa bereganatu duen EKKI sortu aurrekoa da. Hori dela eta, aipatutako hitzarmena aipatutako izatezko eta eskubidezko egoera berriak aurreikusiko dituen beste bategatik ordezkatu behar da.

Adierazi beharra dago Lehiaren Euskal Agintaritzak emandako erantzuna, otsailaren 1eko Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikuluko ezarritakoaren arabera eman dela. Erantzun honek kontsultan emandako informazioa du eskusiboki oinarri eta planteatutako auziaren inguruan indarrean dauden prozeduren eta araudien gaineko informazio orokorra ematea du xede. Hori dela eta, ezin daiteke inolaz ere Lehiaren Euskal Agintaritzarentzat lotesletzat hartu.

Bilbo, 2018ko maiatzaren 21a.

Liburuen eta Liburutegien 10/2007 Legea; Jatorrizko artelan baten autorearen alde parte hartzeko eskubidearen inguruko abenduaren 23ko 3/2008 Legea; azaroaren 4ko 21/2014 Legea, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina aldatzen duena; urtarrilaren 7ko Prozedura Zibilaren 1/2000 Legea; uztailaren 3ko 12/2017 Errege Lege Dekretua, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina aldatzen duena kopia pribatuko bidezko konpentsazio-sistemari dagokionez; apirilaren 13ko 2/2018 Errege Lege Dekretua, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina aldatzen duena, Espainiako ordenamendu juridikoa Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/26/EB Zuzentaraura eta 2017ko irailaren 13ko 2017/1564/EB Zuzentaraura egokitzeko.